



05/ BATZARRA / 2012

**BERASTEGIKO UDALAREN  
2012ko ekainaren 14ko OHIKO UDALBATZARREN AKTA**

*Berastegin, 2012ko ekainaren 14an, 20:00k izanik Udaletxeko Areto Nagusian bildu dira, Aritz Mujika Saizar jauna alkatearen presidentziarean.-*

*Alkateordea:  
Amaia Azkue Eizagirre Anderea.-*

*Zinegotziak:  
Estibaliz Saralegi Labaien Andrea  
Ane Urkizu Lasarte Andrea  
Mikel Beloki Urkizu Jauna  
Leire Garaiburu Arcelus Andrea  
Mirari Saizar Zinkunegi Andrea  
Maialen Etxeberria Masa Andrea*

*Ez dira bertaraten:  
Patxi Irisarri Aranalde Jauna, desenkusatur.-*

*Bertan dago eta fede ematen du idazkari-kontuhartzaileak:  
Maria Pilar Garmendia Miguel Andrea.*

*Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidenteak, 20:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.-*

**LEHEN PUNTUA:  
UDAL BATZARREN AKTAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

*Alkateak galdetzen du korporazioko kideren batek baduen esango den aktari inolako oharrik aurkezteko asmorik. Zinegotzi guztiei alde aurretik helarazi zaie akta minuta.-*

- 2012.03.08ko Batzar Berezia
- 2012.04.24ko Batzar Berezia
- 2012.05.29ko Batzar Berezia



*Ez da inongo zuzenketa eskaririk egiten, ondorioz aurkeztua izan diren era berean onartua gertatzen dira.-*

**BIGARREN PUNTUA:**  
**ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

*Indarrean dagoen Toki Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoari buruzko Erregelamenduko (2568/1986ko E.D. azaroaren 28koa) 42. artikulua adierazten dituen ondorioetarako, Batzar osoari, ohiko azken bileraz gero, Alkatetzak hartu dituen Ebazpenak aditzera ematen zaizkio.-*

RE20120307.029 Ezohiko Plenoa 2012-03-08  
RE20120312.030 Etxez etxeko zerbitzua  
RE20120312.031 Etxez etxeko zerbitzua  
RE20120312.032 Kontratazio zentrala-Gasoleo C  
RE20120314.033 Luis Azpiroz-Lur mugimenduak  
RE20120320.034 Juan Ignacio Elosegui-Brea  
RE20120321.035 Egurra ateratzeko baimena Azpiroz Ugartemendia Juana  
RE20120321.036 Egurra ateratzeko baimena Saizar Ugartemendia Saturnino  
RE20120321.037 Egurra ateratzeko baimena Intxaurren Ugartemendia Jose Maria  
RE20120321.038 Egurra ateratzeko baimena Ustoa Garciarena Francisco  
RE20120321.039 Juan Jose Olaetxea-Obra baimena  
RE20120322.040 Juan Jose Olaetxearen erreklamazioa  
RE20120327.041 Hiri hondakinen dekalogoia  
RE20120330.042 Josefa Etxegoien-Dendaberri  
RE20120330.043 Txabola-Tolaretxe  
RE20120330.044 Berotegi-Pedro Miguel Zubillaga  
RE20120412.045 Felisa Lizarza-Mintxolo baserria  
RE20120418.046 Familia Ugarientzako hobaria (IBI)  
RE20120418.047 Sinfiriano Iparragirre-Etxeaurre Etxea  
RE20120420.048 Ezohiko Plenoa 2012-04-24  
RE20120424.049 Juan Etxeberria-Domartiñenea Etxea  
RE20120424.050 Idazkariaren lanpostuaren oinarriak  
RE20120425.051 Aitor Etxeberria-Zamargin Etxea  
RE20120426.052 Gipuzkoako Ehiza Federazioari baimena  
RE20120426.053 Gipuzkoako Ehiza Federazioa  
RE20120502.054 Pedro Goienetxe-Txardiñe baserria  
RE20120504.055 Felix Saizar-Etsoin baserria  
RE20120508.056 Diruzaintzako gerakina 2011 likidazioa  
RE20120510.057 Faktura zerrenda-urtarrila  
RE20120510.058 Faktura zerrenda-otsaila  
RE20120510.059 Faktura zerrenda-martxoa  
RE20120510.060 Faktura zerrenda-apirila



RE20120510.061 Ordainketa zerrenda-maiatza  
RE20120511.062 22 237 12 Gizarte zerbitzuko espedientea AES.  
RE20120511.063 22 050 03 Gizarte zerbitzuko espedientea AES.  
RE20120514.064 Maria Pilar Aranburu-Markesaenea  
RE20120517.065 Behin behineko funtzionarioa  
RE20120521.067 Milagros Machinea-Segregazio eskaera  
RE20120522.068 Pedro Goienetxe-Txardiñe baserria-leihoa  
RE20120523.069 Jesus Mari goikoetxea- Gaxtelupe Etxea  
RE20120524.070 Modesta Begiristain- Obra baimena  
RE20120525.071 Ezohiko Plenoa 2012-05-29  
RE20120528.072 Txabola-Jacinto Belaunzaran  
RE20120528.073 Ordainketa zerrenda zkia.4 maiatza  
RE20120530.074 Ordainketa zerrenda zkia.5 elkarteei  
RE20120530.075 Ordainketa zerrenda zkia.6 lansariak  
RE20120611.076 Karlos Etxekonanea-Pirmera ocupacion  
RE20120613.077 Gipuzkoako Ehiza Federazioari baimena  
RE20120613.077 Gipuzkoako Ehiza Federazioa  
RE20120613.078 ohiko Plenoa 2012-06-14

**HIRUGARREN PUNTUA:**

**NAFARROA 1512-2012RI BURUZKO MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

*Alkateak mozioaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:*

*2012 urtea berezia dugu Euskal Herri osoan. Batetik, faxista espainiarrek 1937. urtean Gernika, Durango eta beste hainbat Euskal Herriko udalerrri bonbardatu zuteneko 75. urteurrena betetzen da, eta bestetik, Gaztelak Nafarroa konkistatu zuenetik 500 urte betetzen dira. Ez batean, ez bestean, urtemuga hauetan euskal herritarrok ez daukagu ezer ospatzerik, gure herriaren eta gure herritarren aurkako eraso latzak izan baitziren biek ala biek.-*

*Jakina da hainbat sektoretatik gertaera horien irakurketa okerra eta manipulatu egin izan dela urteotan, irabazleak izaten baitira beti historia idazten dutenak. Baina saldu nahi izan diguten ikuspegi historikoaren gaineratik, irakurketa kritikoa egiten jakin izan du euskal jendarteak. Nafarroako Konkistaren kasuan, esaterako, egun inork ezin du zalantzan jarri 1512koa nafarren borondatearen aurkako konkista odoltsua izan zenik. -*

*Eremu politiko jakin batzuk orain gutxira arte gertaera horrekiko defendatu duten irakurketa oso bestelakoa izan da, ordea. Izan ere, Nafarroak Estatu izaera izan zuela aitortzea eta egungo estatus juridiko-politikoaren inposaketaren ondorio dela onartzea nafarron, euskal herritarren nazio eskubidea urratu zela aitortzea ekarriko bailuke. -*



*Orain dela 500 urteko gertaera horiek iraganekoak dira, bai, baina horren ondorio latzak oraindik ere pairatzen ditugu. Izan ere, gure historian inposaketa horrek ondorio politiko argiak izan ditu. Batetik, gatazka iraunkorra ekarri dio gure herriari, bere naziotasunaren eta eskubideen defentsan. Eta bestetik, mendeetako asimilazio prozesuak, gure nortasuna, gure hizkuntza eta gure kultura desagertzeko zorian jarri ditu. Era berean, gure garapen ekonomikoa baldintzatu izan dugu, eta dugun eredu soziala ere Estatuak inposatu digute. Faktore horiek guztiak eredu berri bat eraikitzeko zailtasunak areagotu besterik ez dute egin.-*

*Baina, inposaketen eta traba guztien gainera, herri honek borondate irmoa izan du eta badu bizirik jarraitzeko eta askatasunerantz urratsak egiteko. Nafarroa bizirik da, Euskal Herria bizirik da 500 urte eta gero, eta bada garaia jendarteak bere etorkizunaz libreki hitz egin eta erabaki dezan. Urtemuga ezin hobea dugu oraingoan, gure iragana gogoratu, etorkizunari ateak irekitzeko eta gure etorkizuna libreki erabaki nahi dugula aldarrikatzeko.*

*Ildo horretatik, ekainaren 16an Nafarroa Bizirik plataformak Iruñean deitutako martxa nazionala begi onez ikusten dugu, urtemuga honetan euskal herritar guztiok, elkarrekin, gure iragana ezagutu eta hortik etorkizunerako jauzia egin dezagun.-*

*Hausnarketa hau abiapuntu hartuta, beraz, Berastegiko Udalak honakoa adierazten du:*

- 1. Berastegiko Udalak, Nafarroako Konkistaren 500. urtemuga honetan, eta Durango, Gernika zein beste hainbat euskal udalerrien bonbardaketetatik 75 urte pasa direnean, gure herriaren memoria historikoa bizirik mantentzeko eta sustatzeko beharra aldarrikatzen du. Ildo horretatik, Udal honek sektore batzuek gertaera historiko horietaz egindako irakurketa okerra eta manipulatu salatzen du.-*
- 2. Berastegiko Udalak Espainiako Estatuari dei egiten dio Nafarroari eta Euskal Herri osoari 1512ko Konkistan eta 1936-39ko altxamendu faxistan eragindako kaltearen aitortza egitea; eta halaber eskatzen dio Nafarroak eta Euskal Herri osoari herri gisa dagozkion eskubideak errespetatzea, Euskal Herria eta Espainiaren artean mendez mende luzatu den gatazka politikoari behin betiko konponbide demokratikoa eraikitzeko urratsak eginez.-*
- 3. Berastegiko Udalak gertaera haiek izandako ondorio sozial zein politikoak aintzat hartzeko beharra adierazten du. Ildo horretatik, Nafarroako, Euskal Herri osoko jendarteak etorkizunari ateak irekitzeko garaia dela uste du, eta euskal jendarteak bere etorkizunaz libreki hitz egin eta erabakitzeko eskubidea duela aitortzen du. Era berean, Udal honek eskubide horren alde jarduteko bere konpromisoa adierazten du.-*



*Presidentziak aurkeztutako mozioa bozkaturik, onartua gertatzen da.-*

**LAUGARREN PUNTUA:**  
**LEHIBERRI ZENTRAL BURUZKO MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

*Alkateak mozioaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:*

*Tolosaldea Garatzenek eskualdeko enpresak laguntzen eta berrikuntzako proiektuak sustatzen urteak daramatza. 2011. urtean hitzartuta zegoen miloi bateko euroko partida izendua ez da iritsi eta, bere orde, Espainiako Gobernuak Ikerkuntza, Berrikuntza eta Garapeneko Estatuko Idazkariaren faxa helarazi du. Diru-laguntza izendu hori ezinbestekoa da 2012an LEHIBERRI ZENTROAREN eraikitze fasea eta berarekin dakarren eta martxan dagoen berrikuntzako proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. Partida izendu hori berehala jaso ezean, proiektuen bideragarritasun ekonomikoa kolokan geratuko da*

**PROPOSAMENA:**

*1- Berastegiko Udalak Tolosaldea Garatzenek azken urteetan berrikuntzaren alde egindako lana goraiatzen du eta bide horretan sakontzen jarrai dezala eskatzen dio.-*

*2- Berastegiko Udalak Espainiako Gobernuari hitzartuta zeuden partida izendua Tolosaldea Garatzen-eri helaraztea eskatzen dio. Beraz, Espainiako Gobernuari bere kabuz eta inongo adostasunik gabe hartu berri duen erabakia atzera bota dezala eta izendatuta zegoen dirua lehen bai lehen ekar dezala eskatzen dio.*

*Presidentziak aurkeztutako mozioa bozkaturik, onartua gertatzen da.-*

**BOSTGARREN PUNTUA:**  
**ERAIKUNTZA ETA DESJABETZEAREN UDAL ORDENANTZA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

*Ikusirik eraikuntza eta desjabetzearen udal ordenantza:*



*Agiria ikusita, Udal Batzarrak, bildutakoen ahobatez, ERABAKI DU:*

**LEHENIK:** *Hasierako izaeraz onartzea Eraikuntza eta Desjabetzea arautzen duen udal ordenantza.-*

**BIGARREN:** *Espedientea, arauzko eran jendaurreko erakustaldian ezartzea.-*

**HIRUGARRENA:** *Jendaurreko erakustaldian inongo erreklamazio edo murtzilorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe Udal Eraikuntza eta Desjabetzea arautzen duen ordenantza behin betiko izaeraz onartutzat joko da-*

*Ahobatezko adostasunez, aurkeztua izan den eran erabaki proposamena onartzen da.-*

**SEIGARREN PUNTUA:**

**URBANIZAZIOAREN UDAL ORDENANTZA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

*Agiria ikusita, Udal Batzarrak, bildutakoen ahobatez, ERABAKI DU:*

**LEHENIK:** *Hasierako izaeraz onartzea Urbanizazioaren udal ordenantza.-*

**BIGARREN:** *Espedientea, arauzko eran jendaurreko erakustaldian ezartzea.-*

**HIRUGARRENA:** *Jendaurreko erakustaldian inongo erreklamazio edo murtzilorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe urbanizazioaren ordenantza behin betiko izaeraz onartutzat joko da-*

*Ahobatezko adostasunez, aurkeztua izan den eran erabaki proposamena onartzen da.-*

**ZAZPIGARREN PUNTUA:**

**HIRIGINTZA-PLANEN EDUKIEN UDAL ORDENANTZA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

*Agiria ikusita, Udal Batzarrak, bildutakoen ahobatez, ERABAKI DU:*

**LEHENIK:** *Hasierako izaeraz onartzea hirigintza-planen edukien udal ordenantza.-*

**BIGARREN:** *Espedientea, arauzko eran jendaurreko erakustaldian ezartzea.-*



**HIRUGARRENA:** Jendaurreko erakustaldian inongo erreklamazio edo murtzilorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe Hirigintza-planen edukia arautzen duen ordenantza behin betiko izaeraz onartutzat joko da-

Ahobatezko adostasunez, aurkeztua izan den eran erabaki proposamena onartzen da.-

**ZORTZIGARREN PUNTUA:**  
**LIZENTZIEN UDAL ORDENANTZA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

Agiria ikusita, Udal Batzarrak, bildutakoen ahobatez, ERABAKI DU:

**LEHENIK:** Hasierako izaeraz onartzea lizentzien udal ordenantza.-

**BIGARREN:** Espedientea, arauzko eran jendaurreko erakustaldian ezartzea.-

**HIRUGARRENA:** Jendaurreko erakustaldian inongo erreklamazio edo murtzilorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe Lizentziak arautzen dituen ordenantza behin betiko izaeraz onartutzat joko da-

Ahobatezko adostasunez, aurkeztua izan den eran erabaki proposamena onartzen da.-

**BEDERATZIGARREN PUNTUA:**  
**INGURUMENAREN BABESAREN UDAL ORDENANTZA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

Agiria ikusita, Udal Batzarrak, bildutakoen ahobatez, ERABAKI DU:

**LEHENIK:** Hasierako izaeraz onartzea Ingurumenaren babesare udal ordenantza.-

**BIGARREN:** Espedientea, arauzko eran jendaurreko erakustaldian ezartzea.-

**HIRUGARRENA:** Jendaurreko erakustaldian inongo erreklamazio edo murtzilorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe Ingurumena babesa arautzen duen ordenantza behin betiko izaeraz onartutzat joko da-

Ahobatezko adostasunez, aurkeztua izan den eran erabaki proposamena onartzen da.-

**HAMARGARREN PUNTUA:**  
**UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN UDAL ORDENANTZA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**



*Agiria ikusita, Udal Batzarrak, bildutakoen ahobatez, ERABAKI DU:*

**LEHENIK:** *Hasierako izaeraz onartzea Udal etxebizitza tasatuen udal ordenantza.-*

**BIGARREN:** *Espedientea, arauzko eran jendaurreko erakustaldian ezartzea.-*

**HIRUGARRENA:** *Jendaurreko erakustaldian inongo erreklamazio edo murtzilorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe Udal Etxebizitza Tasatuak arautzen dituen ordenantza behin betiko izaeraz onartutzat joko da-*

*Ahobatezko adostasunez, aurkeztua izan den eran erabaki proposamena onartzen da.-*

**HAMAIKAGARREN PUNTUA:**

**“REHABILITACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE BERASTEGI EXP. KOD. L13.1/11”  
PROIEKTUA EGIKARITZEKO LANDAGIPUZKOA32 PROGRAMAREKIN BAT DATOZEN  
DIRU LAGUNTZAK LORTZEKO BERASTEGI UDALAREN ETA ETORLUR GIPUZKOAKO  
LURRA, SAUREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

*Alkateak lankidetzaren hitzarmenaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:*

BERASTEGIKO UDALAREN ETA ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, SAUREN ETA ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA: “REHABILITACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE BERASTEGI EXP. KOD. L.13.1/11” PROIEKTUA EGIKARITZEKO LANDAGIPUZKOA32 PROGRAMAREKIN BAT DATOZTEN DIRU LAGUNTZAK LORTZEKO

BILDUTA

Alde batetik, Don ARITZ MUJIKA SAIZAR Berastegiko udaletxeko alkatea.

Bestetik, JUAN CARLOS ALDUNTZIN JUANENA Jauna, Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A.U. Foru Sozietatearen Administrazio Kontseiluko lehendakaria,





ARI DIRA

ARITZ MUJIKA SAIZAR Jauna, Berastegiko Udaletxe Txit Gorenaren izenean, dokumentu hau sinatzeko berariaz ahalmendua, 2012ko ekainaren 14ean ospatutako udalbatzan hartutako erabakiaren arabera.

JUAN CARLOS ALDUNTZIN JUANENA Jauna, Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A.U. Foru Sozietatearen Legezko ordezkari gisa, ekintza honetarako espresuki ahalmendua, 2012ko ekainaren 1ean ospatutako Administrazio Kontseiluaren erabakiaren arabera.

Parte-hartzaileek agiri hau sinatzeko behar den lege gaitasuna aitortzen diote elkarri eta, hala, hau

ADIERAZTEN DUTE

1. Azaroaren 25eko 74/2008 Foru Dekretuaren bitartez, Landagipuzkoa 32 programan sartzen den Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan erabilera anitzeko azpiegituretarako inbertsioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutakoak, aukeratzeko eta egikaritzeko prozedura arautu zen.

2. Foru Dekretu haren babesean, Diputatuen Kontseiluak, 2009ko apirilaren 7ko bileran hartutako erabakiaren bitartez, udal inbertsio planetan sartzeko aukeratutako inbertsioen zerrenda behin betiko onartu zen, eta baita ere, udalerrri onuradun bakoitzean, inbertsio horien inguruko kalkulua.

Gainera, aipatutako erabakiaren bitartez Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A.U. foru sozietatea publikoari agindu zitzaion behin betiko onartutako inbertsioen zerrendari dagozkion inbertsio planak egiteko eta plan horietan aurreikusitako inbertsioak egikaritzeko.

3. Hau da aukeratutako inbertsioetako bat: "BERASTEGIKO UDALETXEAREN ERABERRITZE OBRA-LANAK ESP. KOD. L.13.1/11"

4. Etorlur Gipuzkoako Lurra, S.A.U. sozietateak mandatu hura betetze aldera, aipatutako jarduketari dagokion inbertsio plana prestatu zuen, Berastegiko Udalaren laguntzarekin

Aipatutako dokumentua Berastegiko udalaren Udalbatzarrak 2011ko maiatzaren 30ean hartutako erabakiaren bidez onartu zuen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2011ko ekainaren 7an eginiko bileran.

5. Berastegiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak inbertsio plana finantzatzeko eta gauzatzeko dagokion hitzarmena 2011ko ekainaren 10ean sinatu zen.



6. Aipatutako agirien arabera, inbertsioak egikaritzeko gastua 1.723.571,77 eurokoa da, hauetatik, 800.000 euro Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko dituelarik, eta gainontzekoa, hau da, 923.571,72 euro, Berastegiko Udaletxeak.

7. Ikus daitekeenez, proiektu honen finantzaketa Berastegiko udaletxearentzat oso garestia da, horregatik, Etorlurrek bere talde teknikoa eta juridikoa eskeintzen du, beste administrazioetatik datozen eta Landagipuzkoa 32 programarekin bateragarri diren diru-laguntzak lortu ahal izateko, aipatutako obra egikaritzen ari den esparruan.

#### KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea

Hitzarmen honen xedea, bi alderdien elkarlana arautzearena da diru-laguntzei dagokionez.

Bigarrena.- Elkarlan eremua

Hitzarmen honen elkarlan eremua da, Berastegiko Udaletxearen alde Landagipuzkoa 32rekin bateragarri diren diru-laguntzak lortzea, aipatutako udaletxearentzat suposatu duen finantze-kostua arintzeko.

Hirugarrena.- Alderdien betebeharrak

1.- Etorlur SAUK, eskuragarri jarriko dio Berastegiko Udaletxeari, bere pertsonal tekniko, juridiko, finantziar eta administratiboa, Berastegiko Udaletxearen eraberritzearen proiektuaren finantzaketan lagungarri izango zaizkion beste administrazio eta erakunde publikoetatik datozen diru-laguntzak lortzeko.

2.-Berastegiko Udaletxeak bere aldetik, elkarlan hau azpimarratzeko hitza ematen du, aipatutako proiektuak sortutako dokumentu guztietan Etorlurren logotipoa itsatsiz.

Laugarrena.- Hitzarmenaren iraupena

Elkarlan hitzarmen hau, obra lan hau egikaritzeko adostu zen inbertsio plana likidatzean amaituko da.

Bosgarrena.- Erregimen juridikoa

1. Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta ordenamendu juridiko administratiboak zuzenduko du interpretazioa eta garapena. Parte hartzen duten alderdiek administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aginduetara egongo dira, indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 8.3 artikuluan ezartzen duenaren arabera.



*Hitzarmena irakurri ondoren Agiria ikusita, Udal Batzarrak, bildutakoen ahobatez,  
ERABAKI DU:*

**LEHENIK:** *Etorlu SAUk proposatutako hitzarmenaren edukia onartzea.-*

**BIGARREN:** *Alkateari ahalmena ematea aipaturiko lankidetzak hitzarmena sinatzeko.-*

**HAMABIGARREN PUNTUA:**  
**BERTARATUKOEN AZALPENAK.-**

*Puntu honetan, lehendakaritzak bertaratutakoei luzapena egiten die interesgarriak deritzoten azalpenak egin ditzaten.-*

*Egoera honetan, 20.30 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren isla zehatza dena. Fede ematen dut.-*

*Berastegin, 2012ko ekainaren 14a.*

*Udaleko idazkari-kontuhartzailea,*

1.- A  
leído